

10 enplegatu edo gehiagoko euskal enpresen %28,4k berrikuntza teknologikoa egin zuen 2013an; enpresa guztiak aintzat, %12,7k

Euskal AEko enpresek eginiko gastua teknologia berritzeko jardueretan BPGren %3,9 adinakoa da

Eustaten datuen arabera, Euskal AEn, 2011-2013 aldian, enpresen %12,7k egin zuen berrikuntza teknologikorik, aurreko aldian baino ehuneko 1,1 puntu gehiago Guztira, 20.677 enpresa. Enpresa berritzaileak hartzen dira merkaturatzen produktu berriren bat (ondasuna edo zerbitzua) edo asko hobetutako produkturen bat sartu dutenak (%7,1 2013an), edota establezimenduaren baitan prozesu berriren bat edo asko hobetutako prozesua sartu dutenak (%9,6).

10 langile edo gehiagoko enpresetan ehunekoak altuagoak dira, berriz ere; %28,4, aurreko urtean baino ehuneko 0,2 puntu gutxiago. Enpresa horien artean, produktua eraberritu dutenak %19,5 dira, eta prozesua eraberritu dutenak %22,7.

1. taula: Enpresak berrikuntza motaren eta tamainaren arabera. 2011-2013

Euskal AE	Berrikuntza teknologikoa		Enpresa berritzaile teknologikoak	Berrikuntza ez-teknologika		Enpresa berritzaile teknologikoak	Enpresa berritzaileak (1)	Enpresa berritzaile EIN (1) (2)
	Produktuan	Prozesuan		antolamenduan	merkaturatzean			
Guztira	7,1	9,6	12,7	5,6	5,9	9,1	16,7	17,1
10 enplegatu eta gehiago	19,5	22,7	28,4	16,7	10,2	20,0	34,7	37,6

(1) Berrikuntza teknologikoa eta/edo ez-teknologika

(2) Aribideko edo huts egindako berrikuntzako enpresak barne daude


Iturria: Eustat. Euskal AEko berrikuntzaren inkesta

Aurreko urtearen aldean %-0,1 dugu berrikuntza teknologikoaren gastuan

2013an, Euskal AEko enpresek 2.563,5 milioiko gastua egin zuten teknologia berritzeko jardueretan; %-0,1 aurreko urtearen aldean. BPGren %3,9 da gastua.

Berrikuntzarako behar diren jarduera garrantzitsuenen artean banatuz gero, honako hauek nabarmentzen dira: barruko I+G (%51,4); makinak eta ekipoak erosteko gastua (%21,0); kanpoko I+Gren erosketak (%15,9). Gainerako jardueretarako %11,7 geratzen da.

1. grafikoa: Berrikuntza gastuaren banaketa jardueren arabera (%). 2013 urtea



Iturria: Eustat. Euskal AEko berrikuntzaren inkesta

Enpresa berritzaileen %23,2k finantzaketa publikoa jasotzen du.

Laguntza horren jatorriari behatuz gero, Eusko Jaurlaritza nabarmentzen da, laguntza guztien %19,6rekin. 10 langile edo gehiago dituztenetan, %50,8k laguntzak jasotzen dituzte, eta Eusko Jaurlaritza da, halaber, enpresarik gehien finantzatzen duena. Zehazki, enpresen %39,7.

2. taula: Finantzazio publikoa jasotzen duten enpresa teknologikoki berritzaileak, finantzazioaren jatorriaren arabera (%). 2011-2013

Unitatea: enpresa portzentajea

	Guztira	10 langile edo gehiago
Finantzaketa publikoajasotzen dute hauetatik	23,2	50,8
Tokiko administrazioak	3	7,3
Foru aldundiak	4,9	15,2
Eusko Jaurlaritza	19,6	39,7
Administrazio zentrala	5,7	18,2
Europar Batasuna	2,7	10,5

Iturria: Eustat. Euskal AEko berrikuntzaren inkesta

Bi berrikuntza-motak kontuan harturik, **teknologikoa eta ez-teknologikoa** (azken hau antolaketa eta merkaturatzearekin lotuta) 2013ko enpresa berrikuntzadunak %16,7 dira, aurreko urtean baino ehuneko sei hamarren gutxiago. 10 enplegatu eta gehiagoko enpresak bakarrik kontuan hartuz, enpresa berritzaileak %34,7 dira.

Enpresa berritzaileen %80,5ek uste du berrikuntzak eragin positiboa duela

%66,6k uste du berrikuntzak eragin positiboa duela produktuetan, ondasun edo zerbitzuak direlarik; %69,6k barne-prozesuetan; %44,9k enpleguan eta %30,1ek dio bestelako eragin positiboak badirela, esaterako ingurumen inpaktu txikiagoa edo langileen osasun hobea.

10 langile edo gehiagokoetan, %90,6ren ustez bada eragin positiborik; lehen aipatu portzentajeetan: %85,0, %70,3, %57,6, %50,1.

Faktore jakin batzuek teknologia-berrikuntza oztopatzen dutela uste du enpresen erdiak baino gehiagok

Enpresen %55,5ek uste du teknologia berrikuntza zailtzen duten faktoreak badirela. Faktore horien artean, gehiegizko arrisku ekonomikoak (%39,8), berrikuntzen kostu handiegia (%44,4), eta finantza-iturri falta (%41,0). 10 enplegatu baino gehiagoko enpresetan, berrikuntza oztopatzen duten faktoreak badirela uste dutenak %68,6 dira, aipatutako oztopoak berberak direlarik.

Berrikuntza **ez-teknologikoa** (%9,1) **antolaketa- edo merkaturatze-berrikuntzek** osatzen dute. Antolaketa-berrikuntza enpresa barruan antolatze-metodo berriak ezartzea da enpresako barne-funtzionamenduan; euskal enpresen %5,6k egiten dute. Merkaturatzearena lehen erabili ez diren edo aurrekoak bezalakoak ez diren merkataritzako estrategia edo kontzeptuen egikaritzea da; Erkidegoko enpresen %5,9k egiten dute. Berrikuntza ez-teknologikoa (%20,0), enpresa-tamaina (10 langile edo gehiago) horretarako, antolamenduan datza %16,7tan eta merkaturatzean %10,2tan.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz
Prensa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62
Euskal AEko berrikuntzaren inkesta. Prentsa-ohar gehiago
Euskal AEko berrikuntzaren inkesta. Datu-bankua